

## 68ko Maiatza.

1968ko Maiatzean mendebaldea astindu omen zuen mugimendua gertatu zela 25 urte beteko dira orain. 'Irudimena agintera' (beste modu batez, "sous les pavés, la plage") bezalako lemak ekarriko dira berriro ere gogora, eta bere izaera iraultzailea eztabaidatuko da egunkariek gai honi eskainitako gehigarri berezietan. Ekainean Txabi Etxebarrieta hil zutela ere 25 urte beteko direla jakinda, honako hau esan beharra dago: 65ean jaio ginenok izan dugu Pariseko 68ko maiatza horretaz gauza ugari entzuteko eta irakurtzeko aukera. Txabi Etxebarrietari buruz, ordea, ezer ez dakigu, 75ean jaiotakoek Argalari buruz ezer ez dakiten bezala.

Eta gure belaunaldia ikastoletakoa da. Ikastolak haurrak euskaraz hezitzeko helburu soilarekin sortu ziren agian. Baina besterik ere espero zuenik bazegoela seguru. Noizbait gazte abertzale eta iraultzaileak heziko zituela uste zuenak, santu-santa, dogma, kanon eta abar katolikoak ez irakatsiz euskal gizartearen moral kristau-burgesa gudan erreproduzituko ez zela uste zuenak bezala, orain bere ametsen porrota onartu beharrean aurkitzen da behintzat.

Nolanahi ere, 1968ko Euskal Herriko protagonista zen belaunaldiko ezkerreko abertzaleei gure belaunaldikoen (eta, esan gabe doa, hurrengokoen) ezjakina benetan larria iruditu beharko litzaiekeelakoan nago. Inoiz entzuna dugu 68ko hemengo gazte askorentzat erreferentzia ez zela Paris izan, Txabi Etxebarrieta baizik. Mario Onaindiak berak zera zioen Txabi gogoratuz duela hamabost urte: "1968.eko Euskadi -agian belaunaldi oso baten sorrerakoa zen urte hura- oroimen askotan Txabi Etxebarrietarekin identifikatzen da. Hobeki esan, Etxebarrietekin, zeren bi baitziren -Txabi eta Josean-, nahiko bereizgaitzak, ..." (Mario Onaindia: *Txabi Etxebarrieta in Memoriam*, **Zehatz**, II.- 2, 1978, 50. orr.).

68ko belaunaldi honek ez digu ondorengoei identifikazio honen berririk eman. Katea, berriro ere, eten egin da. Eta oraingoan kontu gutxi eska dakioke belaunaldi gazteagoari. 68koak ez bezala, ez baitu ez politikoki, ez sozialki, ez kulturalki, ez moralki, aurrekoarekiko hausturarik eragin. Euskal Herriaren independentzia, sozialismoa, kultura euskalduna eta desalienatzailea, eta ohizko familiarekin hausten zuen askatasun sexualaren aldarrikapena, esaterako, ez dira gure asmakizuna. Maila guzti hauetan garaipena urte gutxiren buruan lortuko zutela uste izanak

sortutako etsipena liteke bere oraingo isiltasunaren arrazoia agian. Kontua da isilik daudela, isilik.

Katea eten egin dute, beraz, gaurko Euskal Herria ulertu ahal izateko beharrezko den hainbat erreferentzia historikoren memoria ezkutatuz. “Noizbait, egunen batez geure pentsamendu politikoaren historia egiten dugunean, marxismoa nola euskaldundu den eta euskaldunak nola marxista bihurtu diren aztertzeko, -azken hamabost urte hauetan, dena den, bere konklusioak hainbat iraultzailerentzat hainbat burukomin eman duen gai hori- dudarik gabe Txabi Etxebarrietak leku apart bat edukiko du” (*Ibid.*, 49. orr.). Non gelditu dira garai hartan esandakoak?

68ko belaunaldi hark hasi beharko du berandu baino lehen bere memoria astintzen eta burua azaltzen, berau izan bait da Euskal Herriaren historia hurbileko ekintza abertzalea eta iraultzailea determinatu duen maila teorikoko eztabaida politiko sakonean murgildu den bakarra. Baina, mesede bat. Ez utzi zuen ahotsa, garai hartan bertan edota gerora, goiko hitz horiek idatzi zituen Mario Onaindia bezala, espainolekin lerratu zirenen eta direnen esku. Ezta ere ezker abertzalean tamalez hain ugari diren eta luma eta hitza hain arin erabiltzen dituzten pelaje eta habito ezberdinetako betiko kristau anti-marxisten (edo okerrago, sasimarxisten) esku, ezta aspladidanik euskal marxisten ehizean esfortzatu diren abertzale zuri progreen esku. Zuen artean Txabi Etxebarrieta eta Argalaren pentsamendu politikoaren kide denik gelditzen bada behintzat.

KEPA KORTA  
Irakaslea